

HURRENGO IRTEERA

PRÓXIMA SALIDA • PROCHAINE SORTIE

2020ko irailak **11** OSTIRALA

GARAren udako gehigarria



AGUR TERRAZA ETA MASKAREN UDARI

Argazkia: Iñigo URIZ | FOKU

>2-3 Altsasuko dendak eta tabernak, Covid-19aren aurrean tinko >4 El amuerzo tradicional, en Los Gemelos de Antsoain >5 Iparragirre omenduko dute gaur Urretxun «Bihotzeko Jose Mari» ikuskizunarekin >6 Agenda: amplia oferta cultural en la recta final del verano >7 Iñigo Hernando, Galdakaoko alkatearekin elkarrizketa >16 Idoia García, Garraxi jatetxe begetarianoa (Egia): «Oso adin tarte zabaleko bezeroak ditugu»

IRAUNKORRAGOA • MERKEAGOA • OBRARIK GABE

Unamuno
Piensos Unamuno, S.L.

Ondarria Pol. zb. • ALTSASU (Nafarroa)
unamuno@piensosunamuno.com

948 56 28 29

Tokikoan tokiko



BERRIA!
ZABALERA
12 M.



Txalaparta
Jaiak bai borroka ere bai???

Taberna **EZ GAUDE DENOKI**

Zumalakarregi enparantza
ALTSASU



TABERNA JATETXEA

ARKANGOA

Bazkariak - Afariak - Pintxo bereziak eta paregabeko giroa

Arkangoa, 3 • Tel. 948 56 21 34 **ALTSASU**



PORTUKO OKINDEGIA
OGI ARTISAUAK S.L.
C.I.F. B-71148185

Altsasu (Ibarrea Poligonoa) 948 467153
(Grupo San Pedro) 948 563822
Etxarri-Aranatz 948 460988

Ongi pasa festetan!!



Sakanaoptika
optometria • audiometria • kontakhtologia

f • www.optikasakana.com

Intxostia zeharbidea 10. ALTSASU • t. 948 563 124



PEIO

FONTANERIA, CALEFACCION Y GAS
ITURGINTZA, BEROGINTZA ETA GASA

Nafarroa k/12
Tfno. 659 28 63 44
ALTSASU



cortina stor izara
etxerako ohialak eta osagarriak
textiles y complementos de hogar

Pilotaleku Zeharbidea, 8
Altsasu
T 948 467 304
www.cortinasizara.com

ALTSASUKO DENDAK ETA TABERNAK, COVID-19AREN AURREAN TINKO

Koronabirusak mundua hankaz gora jarri du agertu zenetik: distantzia fisikoaren ezarpena, maskararen erabilera, jaiak eta ospakizunak bertan behera... Altsasun jai asko ospatzen dituzte, baina irailekoak dira nagusiak Sakanako herrian. Aurten, Euskal Herriko gainontzeko herri eta hirietan gertatu bezala, oso bestelakoak izango dira jaiak, eta irailaren 11 eta 15 artean debekatuta egongo da edozein ospakizun edo jende pilaketa.

Testua: Iruñe **ASTITZ LARUNBE**

Ikasturte hasierarekin zer gertatuko ote da? Birusaren berragerpen handirik izatekotan, berriz ere etxean konfinatu beharko gara? Koronabirusaren garaian, ezjakintasuna da nagusi. Ostalaritza eta merkataritza izan dira, besteak beste, krisi honen eragina zuzen-zuzenean pairatu duten sektoreetako bi.

Pandemiak Altsasuko merkataritza eta ostalaritzan izan duen eragina zein izan den ezagutzeko Altsasuko Dendarien Elkarteko dinamizatzailea den Mikel Kabestrero, Txalaparta tabernako Raul Urkijo Merino, Arkangoa jatetxeko Rafa Arteta Ballarin eta Portuko Okindegiko Edurne Leñena Mujikarekin elkartu gara.

Konfinamenduak negozio gehienek itxiera ekarri zuen, oinarritzko zerbitzuen barruan zeuden negozioak izan ezik. Beste askorentzat bezala, Raul Urkijorentzat taberna itxi beharrek diru sarreraren murriztapen handia eragin zuen: «Urteak hamabi hilabete ditu. Bada, hiru hilabetez taberna itxita izateak, %33 gutxiago fakturatzea ekarri digu».

Egoera oso gogorra izan da guztientzat, hala adierazi du Rafa Artetak: «Pandemiak izan duen garapenera eta momentu bakoitzeko neurrietara egokitzen joan gara. Esaten zigutenaren arabera, negozioari errendimendu handiena ateratzen saiatu gara».

Oso bestelakoa izan da Portuko Okindegiaren egoera. Oinarritzko zerbitzua izanik, pandemia hasieratik lanean ibili dira Edurne Leñena eta okindegiko langile guztiak Sakanako bizilagunei ogia zerbitzatzuz: «Hasieratik neurriak hartu ditugu, unean uneko

ERREPORTAJEA



«ALTSASUN BEZEROEK BERTAKO KOMERTZIO ETA OSTALARIEN ALDEKO APUSTUA EGINDUTE. HERRIAN BERTAN BEHAR GUZTIAK ASETZEKO AUKERA IZATEA ASKO BALIOETSI DUTE»

«JAIK NEGOZIOEN BIHOTZA DIRA HEIN HANDI BATEAN. MAILA EKONOMIKOAN ZEIN LAN MAILAN KOLPE HANDIA IZANGO DA AURTEN FESTARIK EZ IZATEA»

araudia jarraituz». Konfinamenduko hasierako egunak oso gogorrak izan ziren Leñenarentzat: «Hasiera gogorra izan zen, ez genekien nola jokatu, ez genekien zer egin genezakeen eta zer ez... Urduritasun handia zegoen gure artean, bai eta bezeroen artean ere».

Hasierako asteak kaotikoak izan zirela gogora ekarri du Kabestrerok ere: «Komertzio asko irekita zeuden oinarritzko zerbitzuak zirelako eta ez zegoen informaziorik. Martxoa eta apirila kaotikoak izan baziren ere, gainerako komertzioen irekiera progresiboa oso ongi antolatu zen».

BERTAN EROSTEKO DEIA

Egoerak hobera egin eta konfinamendua arintzeko neurriak ezartzearekin batera, Altsasun bertan erosteko eta kontsumitzeko deia zabaldu zen herritarren artean. Bezeroek ongi erantzun dutela adierazi dute laurak. «Oso ongi portatu dira eta hasieratik guregan konfiantza izan dute», nabarmendu du Leñenak.

Kabestreroren arabera, krisi honek ekarri duen onena bezeroak izan dira: «Altsasun bertako komertzioaren eta ostalaritzaren aldeko apustua egin dute. Herrian bertan behar guztiak asetzeko aukera izatea asko balioetsi dute».

Era berean, Urkijok gazteriarren aldeko aldarria egin du: «Gazteak asko matxakatzen ari dira baina oso ongi portatu dira hemen, herrian. Zerbait esaten diezu eta kasu egiten dizute. Aldiz, 40 urtetik gorakoek, lau garagardo edan ondoren antzarak ferratzera bidaltzen zaituzte».

Gutxika-gutxika apurtzen badoa ere, oraindik adinekoen artean taberna eta jatetxeetara joateko errezeloa dagoela



Portuko okindegian ez da bezerorik falta egunotan. Irigo URIZ | FOKU

dio Artetak: «Orain dela gutxi arte adinekoen %8-10 baino ez zen etortzen. Egun, %30-40 dator jada».

Uda izanda, terrazak funtsezkoak izan dira ostalariengatzat. «Jendeak terrazetan egoitea nahiago du», adierazi du Leñenak. Gainera, taberna gehienek beren terraza eremua handitzeko aukera izan dute eta, Artetaren aburuz, negozio askorentzat bultzada handia izan da.

AURTEN FESTARIK EZ

Era berean, tabernariak argi dute jaiak herriko negozioendako bultzada ekonomiko handia direla: «Jaiak negozioen bihotza dira hein handi batean. Maila ekonomikoan zein lan mailan kolpe handia izango da aurten festarik ez izatea», onartu du Artetak.

Raul Urkijorentzat «ez-festen» arriskuaren inguruko polemika «zentsugabea» da hein handi batean. Izan ere, «zaintza areagotu» egiten da eta,

beraz, mugak zein murriztapenak «handiagoak» dira.

Ildo horretan, covid-19 kasuen gorakadarekin etor daitezkeen konfinatze eta neurri berrien beldur dira. Kabestoreoren aburuz, beste konfinamendu batek «izugarritzko» galera eragingo luke: «Komerztzioaren sektoreak hamar urte daramatza krisian eta urtetik urtera egoera okerragoa da. Beste konfinamendu batek negozio askoren itxiera ekarriko luke eta, herri txiki batean, denda bat ixten bada oso zaila da berriz irekitzea».

Leñenaren arabera, etorkizunera begiratzea zaila da, egunetik egunera neurriak aldatzen direlako: «Ezjakintasuna dago, pandemiak zer-nola garapena duen kontuan izan beharra dago».

Etorkizuna zaila izango bada ere, argi dago, dendari eta ostalariak ahal duten guztia egingo dutela, orain artean egin bezala, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko.

MÁS DE 4.000 BONOS PARA IMPULSAR Y FOMENTAR EL COMERCIO LOCAL

El Ayuntamiento de Altsasu, en colaboración con Altsasuko Dendarien Elkarte (ADE), ha puesto en marcha una campaña para incentivar el consumo en los comercios, así como en bares y restaurantes del pueblo.

«Altsasu bonoak» es el nombre de esta campaña promovida y financiada por el consistorio local que en nueve días agotó los más de 4.000 bonos emitidos y que fueron repartidos en el Centro Cultural Iortia.

Cada bono tiene un valor de 40 euros, de los que, al canjearlo, el o la altsasuarra abona 30 euros al establecimiento y el Ayuntamiento se hará cargo de los 10 euros restantes. Para poder hacer uso de los bonos se deberá hacer una compra mínima de 40 euros.

Alrededor de 80 establecimientos se han unido a esta campaña que pretende seguir impulsando el comercio y la hostelería local, que desde el inicio de la pandemia ha

dado un servicio cercano y de calidad a los altsasuarras que se han acercado a cada tienda, bar o restaurante del pueblo.

Altsasuko Dendarien Elkarte ha sido la encargada de gestionar toda la campaña, que comenzó el 13 de julio y finalizará el próximo 30 de setiembre.

Para Mikel Kabestrero, dinamizador de ADE, se trata de una apuesta clara e importante para incentivar la economía local, especialmente golpeada por la crisis del Covid-19: «Seguramente es la campaña más grande que se ha hecho a nivel de comercio en Altsasu, e incluso, en Sakana».

Kabestrero apunta que aunque es pronto para sacar conclusiones, «el canje va a buen ritmo». Desde ADE creen que con la llegada de la pandemia la gente se ha dado cuenta de la importancia de tener todos los servicios cerca de casa: «No todos los valles y municipios de Nafarroa tienen cubiertos todos los servicios. En Sakana tenemos la suerte de que sí».



La campaña de bonos para impulsar el comercio de Altsasu finalizará el 30 de setiembre.

Irigo URIZ | FOKU

nik
A S E N S I O
argozki denda
Iortia kalea 1 | altsasu | tel: 948 469 023

TAXI
JON MENDIA
9 ESERLEKU-PLAZAS
DVD
24 ORDUKO ZERBITZUA-SERVICIO 24 HORAS
Altsasu (Nafarroa) • 679 622 107

AKEITA KAFETEGIA
ALLIANZ ASEGURUAK
ARKATZ LIBURU-DENDA
ASENSIO MODA
BENGOETXEA OINETAKOAK
BOUTIQUE EGIN
CRISTINA JANARI-DENDA
DEPORTES LEZEA
GAUTXORI TABERNA
GERTU SAKANA
IKER KIROLAK
INMOBILIARIA AGURAIN
IULENE
IZARA GORTNAK
JOSELEN &
JOSS MODA

Comercios de Navarra
Nafarroako dendak

ARDURA
RESPONSABILIDAD

Acción subvencionada por el Gobierno de Navarra - Nafarroako Gobernua diruz lagundutako jarduketak

KATUKA
MARI CARMEN
MARIGORRI
ML MODA GIZONEZKOA
ML MODA EMAKUMEZKOA
NORTE BITXI-DENDA
LARKA EMAKUMEA GIZONA
LASA KIROLAK, LIBURUNDA
LOREA LOREDENDA, PINPLINPAUXA
RAMOS ETXETRESNAK TA ELEKTRIZITATEA
SANTA CRUZ ALTZARIAK TA SUKALDEAK
SAKANA OPTIKA, SARE OINETAKOAK
SORKUNDE HARATEGIA
TU TIENDA ESPECIAL, TXARTEL
TXIKITXO, XAGU INFORMATIKA

25
URTE
ADE
Altsasuko Dendarien Elkarte
Asociación de Comerciantes de Altsasu



B Barceló Bidaiak
the travel brand

Mª Jesús López
Erkuden Porta
Gipuzkoa, 4. ALTSASU
t 948 56 41 87
alsasua@barceloviajes.com



Los gemelos Julen y Fermín regentan el bar Los Gemelos de Antsoain.

Idoia ZABALETA | FOKU

EL ALMUERZO TRADICIONAL, EN LOS GEMELOS DE ANTZOAIN

Los Gemelos

TABERNA JATETXEA

PRESOAK ETXERA!

Hnos. Noain Etorbidea, 38 ANTZOAIN (NAFARROA)
Tfnoa. 948 12 95 73

BAR ZALDIKO

ANTZOAIN

ERREPUBLIKA LIBRE LA NABARRA AUZOA!!

Microlan
aerospace

Erronkek gure barneko onena ateratzera laguntzen gaituzte, denok elkarrekin Aurrera egiten!

I.A. | ANTZOAIN

Los Gemelos es un bar de toda la vida de Antsoain (Nafarroa). Esperanza e Ildefonso fueron quienes abrieron el bar que hoy en día regentan sus hijos gemelos, Julen y Fermín, junto con su hermano José Luis. De ahí el nombre de este bar en el que día a día, los hermanos De la Torre Palomar continúan con el legado que iniciaron sus padres.

Situado en el polígono de Antsoain (Avenida Hermanos Noain, 30), Los Gemelos está especializado en los almuerzos. De lunes a sábado, el bar se llena de comensales que se acercan hasta allí para disfrutar de un almuerzo tradicional.

Patas, callos o ajoarriero son las cazuelas que más éxito tienen. Y es que estos platos típicos en los almuerzos de nuestra tierra son cocinados en recipientes de barro. Además de las cazuelas, en Los Gemelos podremos optar por una carta de bocatas variados, así como tortillas rellenas, torreznos y orejas.

Después del desayuno, el almuerzo es considerado como la segunda comida más importante del día. Y en estos días en los que el tiempo es oro, el almuerzo da la energía que se necesita para seguir afrontando el día, controla el apetito y mantiene activo el metabolismo.

CAZUELICA DE MANITAS DE CERDO

Esta receta no será probablemente la de nombre más atractivo, pero sí una de las más ricas y sabrosas. Esta parte del cerdo puede parecer engorrosa y complicada de preparar, pero lo cierto es que en la actualidad viene muy limpia de la carnicería por lo que nos dará muy poco trabajo su preparación.

ELABORACIÓN:

- Primero hay que sazonar y aderezar las manitas de cerdo con orégano. A la hora de comprar la carne, indicaremos al carnicero que corte cada manita de cerdo en cuatro trozos: un corte longitudinal, y, después, cada mitad en dos trozos.
- A continuación, colocaremos los ocho trozos de carne en una olla a presión, lo cubriremos todo con agua y le añadiremos los dos ajos enteros y la hoja de laurel. Cerraremos la olla y lo calentaremos a fuego fuerte hasta que suba la válvula al máximo. Después, bajaremos la temperatura al mínimo y lo dejaremos cocer durante 45 minutos.
- Transcurrido este tiempo, retiraremos la olla del fuego. Cuando se haya enfriado por completo, sacaremos las manitas de cerdo a una bandeja y colaremos el caldo de la cocción.
- Rebozaremos cada trozo de carne en harina y huevo y los freiremos en una sartén con aceite a fuego medio. Una vez fritos, lo sacaremos a una cazuela limpia.
- Cuando tengamos todos los trozos rebozados, retiraremos casi todo el aceite de la sartén y doraremos en los restos de esa misma grasa una cucharada de harina a la que le verteremos un poco del caldo, removeremos y añadiremos sobre el guiso.
- Por último, debemos probar el punto de sal y dejaremos cocer las manitas de cerdo otros 10 minutos a fuego lento antes de servirlo y disfrutar de todo su sabor.

Ingredientes:	
•	2 manitas de cerdo
•	2 ajos
•	1 hoja de laurel
•	2 huevos
•	Orégano seco
•	Harina
•	Aceite de Girasol
•	Sal



Así pues, para disfrutar de un almuerzo tradicional, el de toda la vida, no hay más que acercarse al bar Los Gemelos donde, de lunes a viernes, en horario de

7:30 a 14:30, la oferta gastronómica de los hermanos Julen, Fermín y José Luis hacen de la hora del almuerzo el mejor momento del día.

Nahi bezala ez bada ere, Urretxuko herriak Joxe Mari Iparragirre omentzen jarraituko du datozen asteetan. Bardoaren irudia eta bizipenak ezagutarazteko jardueren artean, bere ekarpen nagusia izan ziren kantuek leku berezia dute.

Gorazarre doinu eta hitzak euskal koblakari esanguratsuenari

Maitane ALDANONDO | URRETXU

Joxe Mari Iparragirre jaio zela bi mende bete ziren abuztuaren 12an eta urteurrena hamai-ka ekimenekin ospatu nahi zuten urretxuarrek. Iparragirre 2020 programa atondua zuten, baina koronabirusak jarduera asko bertan behera uztera edo atzeratzera behartu du. Hala ere, herrikide ezaguna gogoratzeko zenbait jarduerari eutsi diete.

Aurreikusitakoa baino sei hilabete geroago helduko da horietako bat, gaur bertan. Labeaga aretoko oholtza gainean “Iparragirre: Bihotzeko Jose Mari” ikuskizuna eskainiko dute. Iparragirreraren bizitzako emakume esanguratsuen bidez, musikariaren bizipenak eta garaiko gertaera nagusietako batzuk errepasatuko dituzte. Ainara Ortega, Ane Gabarain eta Joli Paskualena aktoreek gorpuztuko dituzte ama, emaztea, Parisen ezagutu zuen sopranoa, Manuela, alabak... Haiek bardoari idatzitako fikziozko gutunak izango dira kontakizunaren haria, bere kanta ezagunekin tartekatuta. Gutunak Aizpea Goenagak, Arantxa Iturbek eta Iñigo Legorburuk sortu dituzte.

Kontzertu eszenikoa Bilboko Loraldia kultur elkarteak, Tanttaka antzerki taldeak eta Demode Quartet musika laukoteak elkarlanean eratu dute, Urretxuko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta. Martxoaren 10ean antzeztu behar zuten Labeagan, biharamunean Bilboko Arriaga antzokian egindako estreinaldiaren aurretik; baina herrian atzemandako koronabirus kasuaren ondorioz, bertan behera utzi zuten. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarre-

rak aretoan bertan salgai egongo dira 5 euroan.

Bihar, aldiz, Gorka Hermosa akordeoi jotzaile urretxuarrek Iparragirreraren melodia ezagunekin osatu duen “Urretxutik Mundura” obra estreinakoz joko du Donostiako Trinitate plazan. Emanaldian berarekin ariko dira Jon Maia bertsolaria, Jesus Prieto, Blanchard Strings eta Easo Abesbatza. Bigarren zatian, berriz, Gontzal Mendibilek omen- duaren kanta ezagunak abestuko ditu.

Sorlekuko aztarnen bidea

XIX. mendeko historiako unerik esanguratsuenak bizi izan zituen Iparragirrek, hala nola, gerrak, erbestea eta migrazioa. Ospea, orde, euskal kulturaren parte diren kante eman zioten; horien artean, “Gernikako Arbola” da aipatuena, nahiz eta ez zuen berak sortu. Doinua Blas Altuna pianistak idatzi zuen, eta hitzak, Jose

GAUR ETA BIHAR

Gaur bertan, Labeaga aretoko oholtza gainean, “Iparragirre: Bihotzeko Jose Mari” ikuskizuna eskainiko dute, eta bihar, Donostiako Trinitate plazan, Gorka Hermosa akordeoi jotzaileak “Urretxutik Mundura” pieza joko du estreinakoz.



Gaurko emanaldian parte hartuko duten musikari eta aktoreak. M. RAMIREZ | FOKU

Miguel Arrieta Maskaruak. Edonola ere, Iparragirrerri atxiki zaio. Horregatik, bigarren mendeurren honetan, Euskal Herriko ereserki izatea eskatu zuten hainbat euskal musikaririk. Sorlekuan, berriz, kantaren partitura eta bere irudia margotu dituzte jaio zen kalean.

Datozen asteetan Iparragirrek Urretxurekin duen loturan sarrontzeko beste jarduerak batzuk gauzatuko dituzte. Gustagarriena, urriaren 4an eta 25ean egingo dituzten igande gastrokulturalak dira. Eguerdian, Alde Zaharreko Aldapa, Goiko Kale, Ezkurra eta Navarro taberneak XIX. mendean herriak zuen giroa berreskuratu-ko dute, garaiko argazki eta abes-

tiekin. Bertaratzen direnek haren omenez egindako pintxoak dastatzeko aukera izango dute.

Egun horietan, gainera, bisita gidatu bana gauzatuko dute. Urriaren 4an bere izena eta estatua duen plazatik irtenda, musikariaren haurtzaroari lotutako guneeetan barrena joango dira partaideak, haren bizitzaren berri duten bitartean. Urriaren 2a baino lehen eman behar da izena, 3 euro ordainduta. Urriaren 25ean, berriz, bisita nork bere kabuz egiteko aukera izango da. Horretarako udaleko webgunetik planoa eskuratu eta QRdun plakak dituzten herriko guneeetara jo beharko dute.

Mugitegi pol. E libildia, 5. zenb.
Urretxu, Gipuzkoa
Telf - Fax: 943 08 13 24 - © 662 18 23 41
prestlanbertikalak@yahoo.es
www.prestlanbertikalak.com

rest
lan bertikalak • líneas de vida

- estetika
- dietetika

Lanbroa

• Bidezahar, 7 ZUMARRAGA
Tel. 943 72 35 81
• Nafarroa, 27 LEGAZPI
Tel. 943 73 17 98

Entzun
AUDIFONOAK

centro de salud auditivo
entzumenaren osasun zentroa

Ondo pasa jaiak

Jon Legaristi
Audioprotesista
Registrado en Osakidetza con el n° 185
Miembro n° 2110 de A.N.A.
(Asociación Nacional de Audioprotesistas)

☎ 943 72 65 91
Labeaga, 58 local I. URRETXU
www.entzunaudifonoak.com
e-mail: entzun@telefonica.net

EITZA
Consulting, SL.

Avda. Urdaneta, 22.
Zumarraga
T. 943 72 10 11
F. 943 72 92 79

Tapiceria
GUILLERMO

!Les desea unas felices fiestas!
Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Matxinporta, 18
20700 URRETXU
Gipuzkoa
Talleres
Tel 943 72 05 72
Fax 943 72 08 20

URRETXUKARROZERIAK

Berotzeko kabina labera • txapa eta pintura • Tapizatuen garbiketa

MATXINPORTA KALEA, 24 URRETXU. TEL- 943 72 34 78

AGENDA >

MUSIKA

ALTSASU

- > PURO RELAJO. IRAILAK 11. 19:00. Iortia zabalgunea.
- > LA BANDA DEL JEFE BIGUN. IRAILAK 12. 22:00. Iortia zabalgunea.
- > BANDA HAIZE BERRIAK & MIELO-TXIN. IRAILAK 13. 13:00. Iortia.

ATARRABIA

- > HERDOIL + ODOLKIAK ORDAINE-TAN + ALERTA GORRIA. IRAILAK 11. 21:00 (ATEAK 20:30). Totem.

BERA

- > PAMPLONA JAZZ BIG BAND. IRAILAK 12. 20:30. Herriko etxeko plaza.

BILBO

- > JUANA GEYSER Y LA IMAGINARIA BANDA MUSICAL. IRAILAK 13. 19:30. Bilborock.

GALDAKAO

- > ZURIÑE ETA FRAN. IRAILAK 11. 20:00. Ardanza parkea.
- > IÑAKI PALACIOS: "HARRIA". IRAILAK 12. 20:00. Ardanza parkea.

GARES

- > KORRONTZI. IRAILAK 13. 19:30. Plaza.

GASTEIZ

- > EUSKAL BARROKENSEMBLE. IRAILAK 11. 20:15. Santa Maria katedrala.
- > GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDA. IRAILAK 11. 19:00. Uraren Lorat.
- > MACHETE EN BOCA + KULTO KULTIBO. IRAILAK 12. 21:00. Jimmy Jazz.
- > BELE HOTSAK: PUTAN CLUB. IRAILAK 13. 20:00. Baratzia.

IRUÑEA

- > TAHURES ZURDOS. IRAILAK 12. 21:00. Baluarte.

Gure Zirkua

Azken egunak

Iker Galarza aktorearen Gure Zirkua Orion eskaini ditu udako saio guztiak. Uztailaren erdialdean hasi zen ikuskizun berria taularatzen eta igande honetan bukatuko du denboraldia. Aurten, karpa handiagoa jarri behar izan dute, egoerak eskatutako segurtasun neurriak bete ahal izateko.

Irailaren 13ra arte. ORIO



- > NOISALIVE. [Salas de Música en la Calle] IRAILAK 16. 20:00. Jito Alai.

LEITZA

- > ROLAN GARCÉS: "ROLAN & LOOP ABESTIAK". IRAILAK 12. 20:00. Piz.

LIZARRA

- > L'APOTHÉOSE: "A TRIBUTE TO TEARS". IRAILAK 11. 20:00. San Migel.
- > ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA: "ARMONICO TRIBUTO". IRAILAK 12. 20:00. Los Llanos kultur.
- > SECRETVM: "COL BEL CHIARO DE STA LUNA". IRAILAK 12. 17:30. Santa Klara komentua.

RIBAFORADA

- > THE BLACK LIST SOUL BAND. IRAILAK 11. 22:00. Barranco.

TAFALLA

- > KOERS. IRAILAK 11. 20:30. Kulturg.

TUTERA

- > LA BIEN QUERIDA. IRAILAK 11. 20:30. Gaztambide.

ESZENAK

ALTSASU

- > "ESENCIAL". IRAILAK 13. 18:00.

AMURRIO

- > ZANGUANGO TEATRO: "BESTALDEAN". IRAILAK 13. 19:00. Juan de Urrutia plaza.

AZPEITIA

- > AGUSTÍN JIMÉNEZ: "¿QUIÉN SOY?". IRAILAK 12. 22:00. Soreasu.

BASAURI

- > "JUANA". IRAILAK 12. 20:30. Social Antzokia.

BILBO

- > ERRE PRODUKZIOAK: "PLAY OUT, MURIENDO DE ÉXITO". IRAILAK 12 ETA 13. 20:00. Campos Elíseos.
- > "CORTA EL CABLE ROJO". IRAILAK 14. 19:30. Arriaga.
- > LEO HARLEM: "DEJA QUE TE CUENTE". IRAILAREN 13RA ARTE. Euskalduna.
- > "CRUZ DE NAVAJAS". IRAILAREN 13RA ARTE. Arriaga.

DONOSTIA

- > "DESMONTANDO A SÉNECA". IRAILAREN 13RA ARTE. 20:00. Victoria Eugenia.
- > TXALO PRODUKZIOAK: "RITA". IRAILAREN 12RA ARTE. 20:00. Antzoki Zaharra.

ELORRIO

- > PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS. IRAILAK 13. 19:00. Plaza ondoko parkingean.

GALDAKAO

- > MIREIA MIRACLE: "ROJO". IRAILAK 11. 18:30. Iturriondo plaza.
- > LA BALDUFA: "BYE YE CONFETTI". IRAILAK 12. 17:00 ETA 19:00. Kurtzeko plaza.
- > PATXIN ETA POTXIN: "INGURUMENA". IRAILAK 13. 18:30. Iturriondo pl.
- > MARKELIÑE: "PSIKE". IRAILAK 13. 20:00. Ardanza parkea.

HERNANI

- > TXALO PRODUKZIOAK: "ENE BAI". IRAILAK 17. 20:00. Biteri.

IRUÑEA

- > CARLOS LATRE. IRAILAK 11.21:00. Baluarte.
- > AGUSTÍN JIMÉNEZ: "¿QUIÉN SOY?". IRAILAK 13. 19:30. Zentral Kafe.
- > "EO!". IRAILAK 13. 20:00. Sala de Cámara de Baluarte.

SESTAO

- > "ODIOS SORDOS". IRAILAK 11. 19:30. Musika Eskola.

TOLOSA

- > "CROMLECH". IRAILAK 11. 19:00. Aranburu jauregia.

URRETXU

- > "IPARRAGIRRE, BIHOTZEKO JOSE MARI". IRAILAK 11. 20:00. Labeaga.

2 GAFAS DE MARCA
CRISTALES INCLUIDOS
99'50 €
o 10 cuotas de 9,95€/mes

OPTICALJA® GALDAKAO

Euskadi Kalea, 4, 48960 Galdakao, Bizkaia. Tel: 944 56 12 83

Consultar condiciones de campaña en tienda

PENA EGUNKARIAK

Plazakoetxe - T. 94 600 98 94

belagorri
BELARDENDA HERBOLARIO

Consejeras en fitoterapia
Naturopatía
Masajes
Nutricionista colegiada
Cosmética ecológica de Labandula

946 002 112 Zamakoa, 6 48960-Galdakao
946 311 439 Lehendakari Agirre, 9 48140-Igorre
belagorriherbolarios@gmail.com

TXIBERRI

ITURALDE 1934 GARENAN
EDANTOKIA • FRONTOI PARTIKULARRA
AITA GOTZON, 4 - URDULIZ - 94 676 07 15

erroia
Kafetegia

Gosariak Desayunos Eramateko pintxoak Pintxos de encargo Inportatutako garagardoa Cervezas de importación Konbinatuak Combinados

Eleizalde kalea. SOPELA • T. 94 404 86 48

Iñigo HERNANDO
GALDAKAOKO ALKATEA

«Horren kaltetua suertatu den kultura arloari bultzada emateko konpromisoa erabatekoa da»

Irailean ere bertan behera geratu dira herrietako jaiak. Galdakao da horietako bat eta, jai ekitaldirik antolatu ez bada ere, ezinbestekoak izan diren sektoreei, izandako portaeragatik, esker ona agertuko diete ekitaldi publiko baten bitartez. Aldi berean, izurritearen ostean horren kaltetua suertatu den kultura arloari bultzada emateko Udalaren konpromisoa erabatekoa dela nabarmendu du Iñigo Hernando alkatea.

Joseba SALBADOR GOIKOETXEA | GALDAKAO

Herri batzuetan kultura egitarau zabala prestatu dute udarako. Beste batzuetan, aldiz, ezer ez egitea erabaki dute. Zein da Galdakaon hartu duzuen erabakia?
Kulturaren aldeko apustu garbia egin dugu. Irailean zehar "Kultur plaza" izeneko ekimen sorta prestatu da herriko hainbat tokitan, kultura segurua dela abiapuntutzat hartuta, eta ikuskizun guztietan bete beharreko osasun neurri guztiak gordeko dira.

Horrela, hilaren 8tik aurrera martxan dira adin tarte guztietara zuzendutako ikuskizunak: kirola, hitzaldiak, musika, antzerkia, zirkua, master-classak, sorkuntza, magia, bertsolaritza, zientzia eta ibilbide historikoak, besteak beste.

Aldi berean, arestian aipatutakoari Torrezabal kultur etxean programatuta dagoena gehitu behar diogu, baina Udalak bultzatutako ekimenak ez

dira horrekin amaituko. Izurritearen ostean horren kaltetua suertatu den kultura arloari bultzada emateko konpromisoa erabatekoa da eta hurrengo hilabete zein urteetan programazio hau finkatu nahi dugu.

Zer giro izan da udan Galdakaon? Herritarrak kanpora atera dira edo herrian ibili dira?

Jendea lasai dago, abuztuan zehar herriko kale-kantoiak hutsa go egoz dira, udako oporrak dirrela eta, baina ez da bestelako girorik sumatu herrian.

Tabernariak eta dendariak izan dira kolpe handiena jaso dutenak batzuk. Beraiei laguntzeko neurriak hartu duzue?

Bai, hasieratik laguntza ekonomikoak egon dira, baita autonomoentzat ere. Dendarientzat Bono Dendak plazaratu ziren eta jendearen erantzuna izugarria izan zen. Aldi berean, tabernarietako dagokienez, neurriak hartu ziren espazio handiagoa eduki

EREDUGARRIA

«Orain arte galdakoztarron portaera eredugarria izan da, eta hemendik aurrera ere erantzukizunez jokatuko dugulakoan nago. Datorren urteko santakurtzak behar den moduan ospatzea espero dut».



Iñigo Hernando alkatea, udalbatza aretoan.

Monika DEL VALE | FOKU

ahal zezaten eta esan daiteke neurri horiek erreferentziatzat hartu dituztela hainbat herritan gauza bera egiteko, zehaztasunak ezagutzeko toki askotatik deitu ziguten eta. Azken finean, izurritearen aurrean erantzun kolektiboa eman behar dugu eta gure aldetik ahal dugun guztia egiten ari gara.

Jai egun hauetarako ekitaldiren bat antolatu duzue? Herritarrei deialdi bereziren bat egin nahi diezue?

Ez, ez da jai ekitaldirik egongo. Normalean jaietako egun nagusi

sia irailaren 14a da, eta, esan bezala, ez da jai ekitaldirik egongo. Hori bai, eguna aprobetxatuz, ezinbestekoak izan diren sektoreei itxialdian erakutsi duten portaera eskertzeko ekitaldi publiko bat egingo dugu Ardanza parkean, aire zabalean. Ekitaldi xume bat izango da eta osasun arau guztiak beteko dira.

Orain arte galdakoztarron portaera eredugarria izan da, eta hemendik aurrera ere erantzukizunez jokatuco dugulakoan nago. Datorren urteko santakurtzak behar den moduan ospatzea espero dut.

IRAILA 2020

KULTUR PLAZA

MUSIKA | ANTZERKIA | ZIRKOA | SORMENA

Guztion eskura

www.galdakao.eus

Galdakao_{ko} Udala

PROGRAMAZIOA

f t i

Idoia GARCIA

GARRAXI JATETXE BEGETARIANO (EGIA-DONOSTIA)

«Oso adin tarte zabaleko bezeroak ditugu»

Garraxi jatetxeak 2001ean zabaldu zituen ateak Donostiako Egia auzoan, egungo kokalekutik gertu. Idoia Garcia (Oiartzun, 1973) sorreratik da bertako bazkide, eta jatetxearen ibilbideaz nahiz izaeraz mintzatu da. Porrontxo jaien faltaz ere bai.

Maitane ALDANONDO | DONOSTIA

Nola sortu zen Garraxi? Ostalaritzan ibilbidea egindakoak al zineten?

Ez. Behar baten ondorioz ireki genuen. Kanpoan bizi izan nintzen denbora luzez, uda batean bueltatu eta pentsatu nuen ez nintzela berriro joango. Moska nire lagunarekin egin nuen topo eta bera ere lanik gabe zegoen. Bagenekien Ametzagaina kalean lokal bat bazegoela, ikusi, eta beste bazkide bat bilatu genuen: Apaio. Horrelaxe izan zen.

Ia bi hamarkada joan dira eta zu zara orduko bazkide bakarra. Zer bilakaera izan du negozioak urteotan?

Urteotan aldatzen joan da. Formula eta bazkide kopuru desberdinak izan ditugu, orain hiru emakume gaude -Begoña Burguiño eta Maider Aranburu ditu bazkide- eta oso gustura. Hasieran, taberna ere bazen, gauean parranda pixka bat egiten genuen... Gazteagoak ginen

eta hirurak nahiko ezagunak, popularrak. Jende pila etortzen zen kanpotik, lagunak, Bilbotik, Zaragozatik... Beste formatu bat zen. Gero, lokal hau salgai zegoela jakin genuen, eta, bestea txikia geratu zitzaigunez, hona ekartzen ausartu ginen, eta, egia esan, oso ondo.

Zergatik begetarianoa? Lehenengoetakoak izango zineten...

Bai, uste dut lehenengoetakoak izan ginela eta horregatik izan zen kristoren bonbazoa... Hasieran ez genuen pentsatu begetarianoa izatea, naturalki gertatu zen. Gu ere ez gara oso haragijaleak, eta, ondorioz, horrela prestatzen genuen janaria, pixka bat berezi; hala ateratzen. Tanteatzen hasi eta ikusi genuen zein izango zen bidea; baina horrela bizi ginelako, ez militantziagatik. Jendeak gogoz hartu zuen; orduan hasi zen pixka bat mugitzen. Guk ireki genuenean lagun batzuek jatetxe bana ireki zuten Bilbon eta Zaragozan. Hiru lokalak batera eta hirurak begetarianoak.



Maider, Bego eta Idoia, Garraxi tabernako bazkideak. GARA

Zein da zuen eskaintza?

Astelehenetik ostiralera eguneko menua eskaintzen dugu, 12 euroan. Lau plater dira. Hasierakoa, zuku eta gazpatxo bat edo salda neguan. Lehen plater bezala, entsalada, krema... Ondoren, bigarren platera, eta, azkenik, postrea. Aukera dago menu erdia hartzeko ere 9,50 euroan; plater printzipala eta postrea edo hasierako bat. Gauetan eta asteburuetan, berri, karta. Denetik dugu: hasie-

rakoak, askotariko entsaladak, arrozak, pastak, guk egindako seitana... Menua egunero aldatzen dugu eta kartan noizbehinka plater berriak sartu.

Janari begetarianoaren inguruko aurreiritziak gainditu al dira?

Oraindik ere entzuten ditugu «zer, letxuga?» eta horrelakoak. Baina edonor dator probatzera, asko kuriositatez; eta, noski, begetarianoak ere badatoz. Askotariko bezeroak ditugu: guraso-

ak seme-alabekin, seme-alabek ekarritako gurasoak, ilobarekin datorren amona... Askori gustatu egiten zaie eta gero lagunekin etortzen dira. Orain jende gazte pila nabari dugu, 17-18 urteko kuadrillak; horrek asko poztzen nau. Eta baita jende heldu pila bat ere. Oso adin tarte zabaleko bezeroak ditugu.

Nola eragin dizue pandemiak?

Inpotentzia handia sentitu dugu. Itxita izan dugu jatetxea, denok bezala, eta irekitzean neurriak hartu ditugu: mahaia kendu, terrazan distantziak zaindu... Uste dut bezeroak lasai daudela, distantzia badagoelako. Topera gabiltza lanean eta, momentuz, pozik gaude, ezin gara kexatu. Jendea gogoz zegoen eta bezero oso fidelak ditugu. Ea neguan zer pasatzen den, baina uda oso potentea izan da eta oso ondo lan egin dugu.

Jai guztiak bezala, Porrontxoak ere bertan behera utzi dituzte.

Nabarituko dugu. Asteburuetan lan asko izaten dugu, baina, Porrontxoetan, are gehiago. Eta gero giroa... kristoren pena da. Espero dugu datorren urtean normaltasunera bueltatzea. Urte asko dira Egian eta saiatzen gara auzoko gauzetan parte hartzen, harreman ona dugu auzokoekin, bizilagunekin...

GAMACH
INSTALACIONES
Gas | Calefacción | Climatización | Fontanería
Tejería, 11 - Bajo Izda.
20012 DONOSTIA
t 943 116 378 • 665 733 336

drunkat.
Drunkat Instrumentos
Virgen del Carmen, 7
Donostia - Guipúzcoa
Drunkat Pro Audio
Virgen del Carmen, 39
Donostia - Guipúzcoa
Tel.: 943 324 618 - tienda@drunkat.es - www.drunkat.es

MU!
HARAKINAK
D. Albarez
EGIA Auzoa - Donostia

KOKKORRIO Taberna
Jai aske batzuegatik
eraso sexistarik ez!
Gora porrontxo jaiak!
Iruresoro 3, Egia. t 943 124 450

zumy
Elektrogailuak
www.zumy.com
Virgen del Carmen, 21. DONOSTIA
Tel.: 943 27 88 28 - 943 27 50 38 - Fax: 943 27 50 22
info@zumy.com